



Martxoaren 8a Emakumeen nazioar-teko eguna da eta horren harira, eki-men eta aldarrikapen ugari egingo dira mundu osoan zehar. Baina egun bateko aldarriaz haratago, berdintasuna eguneroko erronka dela argi dauka Azkoitiko Emakumeen ma-haiak, eta hori gogoan antolatu ditu aurtengo ekimenak: **'Berdintasuna, eguneroko erronka: pentsatu, mugitu ekin!'**, lema hori aukeratu du aurtengo **gorako eta ugari izango dira egingo diren ekimenak.**

Esaterako, Adierazpen guneak' antolatu dituz-te Artxamendi topalekuan, gaztee-kin berdintasunaren gaia lantzeko. Besteak beste, txapak, irudiak eta kolaxak egingo dituzte, eta egindako lanekin erakusketa jarriko dute gero. Horrez gain, martxoaren 6an bazka-ri autogestionatua eta DJ Kortarekin dantzaldia egongo da Elkargunean, eta martxoaren 8an bertan elkarre-taratzea eta kale ekintzak ere egingo dira. [Hemen duzue egitarau osoa, kartelean](#)

Horiez gain, eta udazkeneko esperientzia baliatuz, emakumeak ahalduentzeko ikastaro gehiago ere antolatu ditu Udalak, Berdintasun sailetik. Bost ikastaro izango dira, guztiak ere helburu jakin batekin: emakumeen autoestimua indartzea, objektu izatetik subjektu izatera pasatzea, eta emakume izateagatik sufritzen den diskriminazioari buruzko kontzientzia hartzea. Ikastaroak adin guztietako emakumeei zuzenduta daude, eta martxoan hasiko dira.